

❧ Hitz eta Pitz ❧

Euskal ilustrazioaren egoera, sentimenduak eta ideia nagusiak (gerturatze bat)

IMANOL MERCERO



Airziber Alonso

Galdetegi bat pasatu zitzaien orain arte *Behinola*-n parte hartu duten ilustratzaileei, nahi zuenak erantzun zezan. Hamazortzi erantzun jaso dira.

Denak bildu eta aztertu ondoren, euskal ilustrazioaren egoera, sentimenduak, ideiak eta analisi adierazgarrienak biltzen saiatu gara, kanpoan gelditu direnekiko errespetu osoz, baina jasotako erantzun-kopuruak (hamazortzi!) ematen duen iritziak orokortzeko ahalmena bagenuela uste izanda.

Bana-banako erantzunak agertzea ezinezkoa izan da galderarik gehienetan; posible izan denean egin dugu soilik. Era berean, aipuak era anonimoan agertzen dira, sentimenduzko guztien adibide gisara eman direlako edo, besterik gabe, hala jokatzeko hautua egin dugulako.

Ilustratzaileak hauek dira, alfabetikoki sailkatuta: Aitziber Alonso, Iban Barrenetxea, Antton Dueso, Ángel Domínguez, Eider Eibar, Belén Lucas, Jesús Lucas, Dani Maiz, Iñaki Martiarena *Mattin*, Lorena Martínez, Jokin Mitxelena, Elena Odriozola, Iraia Okina, Manu Ortega, Pedro Oses, Jose Antonio Tellaetxe, Mikel Valverde, Jon Zabaleta.

1. Zer iruditzen zaizu gaur egungo euskal marrazkigintzaren panorama? Zer indargune, zer hutsune nabarmenduko zenituzke?

Ugaritasuna. Egungo euskal marrazkigintzaren panorama irudikatzeke garaian, ugaritasuna da gure ilustratzaileek darabilten adjektibo nagusia. Ofizioan diharduen jende berri asko dagoela aho batez azpimarratu dute, gazteak datozela. Gainera, ugaritasun horretan estiloak ere askotarikoak direla diote denek. Antza, euskaldunoi horren ederki lotzen zaigun *zenbat buru hainbat aburu* esaera ilustraziogintzan ere betetzen omen da.

Denak ez datoz bat, ordea, kalitateari dagokionez. Batzuentzat dagoen aniztasuna kalitate ezaugarria da; beste batzuek kalitatean dagoen gorabehera islatzen dela aniztasun horretan diote, eta ugaritasun horretan «denetarik dagoela» uste dute.

Hutsuneei dagokionez, euskal merkatuaren tamaina txikiak kanpora begira jartzeko beharra eragiten duela eta, lan komertzialez gain, lan pertsonalagoak, arriskutsuagoak egiteko zailtasuna azpimarratzen dute behin baino gehiagotan. Era berean, badira zenbait ahots profesionaltasunari dagozkion kontuak azpimarratu nahi izan dituztenak: ofiziotik bizi beharra korapilatsua dela, lankideen artean elkartasuna falta sumatzen dutela...

2. Hutsaldi luze baten ondoren, azken urteotan badirudi albumak edo irudi-liburuak nagusitu zaizkigula. Zure ustetan, zer-nolako maila lortu da? Zabalkunde hori komikigintzaren parekoa dela iruditzen al zaizu? Zer analisi egingo zenuke?

Guztiek bereizi nahi izan dituzte komikigintza eta ilustraziogintza, daramaten ibilbide historikoari

dagokionez, bai espresio bide gisa, bai merkatu ezaugarriei dagokienez.

Loraldi bat bizitzen ari ote diren entzuten da, baina gaiaz iritzia eman duten guztiek diotenez, iragarpen itxaropentsu bat baino gehiago uste oker bat da. Kontrara, komikiak irakurle oso fidelak izanda ere, komikigileek soldata nekez ateratzen dutela diote. Aspaldidanik omen ditu ezaugarri horiek. Eta gogoan hartzeko modukoa da, komikia aztertzeke orduan, inortxok ere ez duela euskaraz egindako komikia pasadizo hutsetik harago eramaten. Ez gogo faltagatik, baina euskarazko komikiak aldizkako *rara avis*-ak besterik ez dira; ez omen dago euskal komikiaren merkaturik. Salbuespena haur eta gaztetxoei begira sortu ziren *Ipurbeltz* eta *Xabiroi* komiki-aldizkariak dira.

Albumaren ustezko loraldiaz ere ez dira fio ilustratzaileak. Onarturik ere lehen baino gehiago saltzen dela, hastapenetan dagoen eta irakurle fidelak eskuratzeko dituen alor baten antzera ikusten dute albuma.

Batzuen ustez, irudiak gizartean duen gorakadaren albo ondorio baten zantzua izan liteke ustezko loraldi horren kausa. Irudia komunikaziorako baliabide punta-puntakoa den neurrian, irudi bidezko adierazpide guztiak gailentzen ari dira, eta, bistakoa denez, baliabide bisualen hedakuntzari esker, euskarri ilustratuak ugarituz joan dira, hala nola literaturan. Tamalez, ez deritzote kalitatearen aldeko parez pareko apustua egon denik hedakuntza horren arrastoan, argitaletxeen ekoizpen dinamikak tarteko, baina baita –baten batek azpimarratu duenez– euren lanarekin kritikoagoak izan ez direlako ere.

Laburbilduz, esan liteke komikiak gainditzen ez



Aitziber Alonso

duen sabai bat duela eta albumak, dena egiteke. Etorkizun oso oparorik ez da aurreikusten; akaso, egile baten iritziz, liburu ilustratuak finkatuz eta sendotuz joango dira. Ezer onik egitekotan, helduen merkatua (ber)piztu behar dela diote, kalitatearen aldeko apustua ahaztu gabe.

3. Prestigioaren aldetik ere, Euskadi Sarietan ilustraziogintza aintzat hartu da azkenean, lehiaketak ugaltu egin dira... Horrek guztiak ilustratzailearen duintasuna sendotu egin al du? Zer falta zaio horretarako, zer bultzada? Museoetako aretoetara iristea, akaso? Zure iritziz zein da irudiaren papera literaturan? Behar bezain baloratua dagoela uste al duzu? Oraindik apaingarri hutsa gisa hartzen dela uste al duzu? Zer pentsatzen duzu *apaingarri* kontzeptu horretaz?

«Duintasuna ez dizu kanpoko inork ematen.»

Aipu horrek ederki biltzen du emandako erantzun luzeek argudiatzen dutena. Espero zen legez, iritzi emaile bakoitzak bere teoria adierazi du irudiaren eta testuaren balioaz, euren elkarreraginaz eta dagokien betebeharrak komunikatiboaz, ñabardurez


beteak gehienak, baina bi multzotan sailkatzen direnak. Batetik, irudia «apaingarri hutsa» izan litekeela onartzen dutenak daude; bestetik, irudia beti kontaktaren parte dela diotenak.

Guztiak onartzen dute badirela hiru egoera teoriko: irudia testuaren erabateko morroi, testua irudiaren morroi edo, hirugarrenik, oreka-egoera bat, zeinetan irudiaren eta testuaren elkarreraginez garatzen den istorioa. Gehienek hirugarren aukera hori hautatzen dute ideal gisa.

Euren lana erronka polita dela deritzote: bi sorkuntza-hizkuntza dira, istorio bakarrarekin, liburuko orrialdeetan elkarbizitzan, elkar errespetatuz, elkar osatuz. Irudiek indarra ematen diote testuari, eta beste ikuspuntu bat eskaintzen dute, irakurketa aberatsago bat ahalbidetzeko.

Euskadi sariei dagokienez, lehiaketak onak direla diote denek aho batez, eta baten batek «gardentasuna badago» erantsi izan du. Lehiaketek prestigioa ematen dute, eta laguntza inportanteak dira. Lanbidearen duintasunerako onak dira, irudigile berriak edo ezezagunak iluntasunetik ateratzeko moduak dira, eta, gainera, sektoreari indarra eta ikusgarritasuna ematen diote.

Prestigioaren gaiari lotuta, heziketaren beharra azpimarratu nahi izan du pare batek. Euren iritziz,



Luis Alonso

irudiaren baliabideak eta hizkuntza ez bide dira ezagunak gizartean, nahiz eta irudiaren kulturari bizi gaur egun. Hortaz, haurtzarotik abiatuko litzatekeen irudiaren heziketa falta bide da, irakurlea ilustrazioa apaingarri gisa baloratzetik harago joan dadin lortu nahi bada.


Dena den, muinean ilustratzaileak bere obra lantzeko aukera izan behar duela aldarrikatzen da, diskurtso propioa eraikitzeko bitartekoak izan eta editoreek horren aldeko apustua egin behar dutela, kalitatezko obrak egitea baita zaleak irabazteko baliabiderik onena.

4. Ilustratzailea generoaren edo idazlearen mendean al da oraindik ere? Zentzu horretan, zure helburua liburuak marrazkiz ez ezik, letraz ere osatzea al da? Bestela esanda: zure lana haur- eta gazte-liburuak ilustratzera mugatua behartua? ikusten al duzu? Edo ba al duzu bestelako proiektu artistikorik gogoan?

Ilustratzaileen adinaren arabera mendekotasunaren pertzepzioa nola aldatzen den ikusita, ematen du ilustratzailea askapen prozesu baten barruan dagoela. Testingantza pare batek dio garai batean zenbait idazlek marrazkilarien lana errespetatu ez, eta gutxietsi ere egiten zutela. Zorionez, garaiak aldatu egin bide dira, zeren ilustratzaile gehienek ez baitute halakoren arrastorik aipatzen. Aitzitik, askatasunetik abiatzen den lan baten gisa ulertzen dute euren.

Ilustratzaileak, gaur egun, bere ikuspuntua gehitzen dio idatziz jasotako obrari. Egiten dituen irudiek testua interpretatu egiten dute, osatu eta ikuspuntu berri bat gehitu. Morrontzarik ez, hortaz, baina bai errespetua eta, hainbaten iritziz, testuarekiko fidel izateko konpromisoa. Zeren, harako hark esan duen eran, literatura-lan ilustratu batek batasuna erakutsi behar du testuaren eta irudiaren artean, eta hori lortzeko hainbat lagunen talde-lana behar izaten da; eta hordagoa botaz amaitu du hausnarketa: bestela, ilustratzaileak besteen testuei fidel izateko arazoren bat badu, hobe du bere testuak sortu eta ilustratzea.

Baina testu sortzaile izatea ez dago denen asmoetan. Idazlea eta ilustratzailea aldi berean izateko aukera aipatu dutenen artean, erdiak baztertu egiten du aukera hori.



Luis Alonso

Izatekotan, dio batek, testurik gabeko liburua egingo lituzke.

Hori bai, plastika-bide hainbat erabiltzea gus-tuko dutela diote askok. Gehienek euren sormen-grina bideratzeko behar izaten dute askotariko teknika eta materiekin saiatzea eta, nola ez, soldata ateratzeko bideak ere askotarikoak direla aipatu gabe. Gazteek arte-munduan diharduen behargin polifazetikoaren irudia islatzen dute euren erantzunetan; agian, ilustratzaile, belaunaldi berriko kide gehienak (denak?) Arte Ederren eskolatik pasatutakoak direlako.

Azkenik, galdera sorta honen haur/gazte/heldu banaketaren harira, bitxia da bik erakutsi duten seta, azpimarratzen dutenean helduentzako ilustrazioak ez diela plazerik eskaintzen, bai, ordea, haurrentzat egindakoak; beste batek azpimarratu

du, ordea, adinean aurrera egin ahala liburu beraren irakurketa desberdinak egiten direla.

5. Zer-nolako harremana duzu argitaletxeekin? Muga edo pizgarri zaizkizu?

Gehientsuenek ona, argitaletxeekin harreman ona edo oso ona dutela diote. Gainerakoek nahiago izan dute zehaztu argitaletxearen arabera harreman desberdinak izaten dituztela, denetarik dagoela. Batek aipatu du harreman zintzoa edukitzen saiatzen dela, bere iritzia eman eta eurena entzuten duela.

Nola ez, argitaletxeek euren aldeko apustua egitea aho batez eskertzen dute denek. Pozgarria da testu bat jaso eta zuregan pentsatu dutela esanez deitzen dizutenean. Gero, hastapeneko testu- eta ideia-trukearen ondoren, ilustratzailea lanaren aurrean jartzen da.



Iban Barrenexea

Eta une horretatik aurrera, bakarrik sentitzen direla diote, *feedback* gutxi dagoela, edo batere ez dagoela. Eta editorea gehiago inplikatzeari esker-tuko luke hainbatek, edizioari dagozkion mugak ezartzeaz harago joango litzatekeen lankidetzat bat gogoan.

6. Zerk bultzatu zintuen ilustrazioaren munduan sartzea? Noiz izan zenuen argi arlo horretan lan egin nahi zenuela?

«Txikitatik», «betidanik», «beti bizi izan naiz irudien munduan», «berez etorri zen, pixkanaka», «arte grafikoetatik jauzi eginda», «publizitate-mundutik etorri nintzen ni», «eskola-liburuak ilustratzen hasi nintzen», «mundu honetan sartzeko aukera izan nuen 1972an, Jorge Oteizaren Deba Arte Eskolan» eta, batik bat, «Arte Ederrak ikasita», «ikasten ari nintzela», «ari nintzenean». «Kasualitate hutsa, hamasei urterekin.»

7. Zein da gogoratzen duzun lehen irudigile edo margolaria? Zirrara sortu zizun lehen artista hori nor izan zen? Nor dira orain zure erreferenteak ilustrazioan? Zure ustez, zer ilustratzaileen lanei jarraitu beharko genieke?

Euren kuttunak izendatzeko garaian, batzuek ez dute izenik eman nahi izan; beste batzuek zerrenda jakingarriak proposatu dituzte. Guztien gogoan irudiek sortzen dieten lilura sumatzen da.

Lehenengo erreferente gisa hauek izendatu dituzte: *Ipurbeltz*, ikastolako eskola liburu-etako Antton Olariaga, *Cuentos de Calleja* bildumakoak, Friz Freleng, Jose Ramón Sanchez, Asun Balzolararen *Iholdi*, Jesus Lukasen *Sorgin gaiztoa*, Roser Capdevilak ilustraturiko *Ardi beltza*, *Nikolas txiki*, Manu Ortegaren *Aduna eta aduanak*, Lisbeth Zwerger, «Umetan lagun bat neukan eta elkarrekin aritzen ginen marrazten, hari begiratzen nion nik», Alex Raymond, Klee, Alberto Breccia, Frans Hals, David Hockney, Rembrandt-en grabatuak,

Loustal, Tardi, Chaland, Giraud, Bosh, Cheval, Herge, Sempe, Tony Ross edo Quentin Blake, Sfar, Gipi, Clément Oubrerie, Goiko, Txiki, Tillac, Arruetarrak, eta abar.

Oraingo eredutzat hauek: Angel Del Castillo, Norman Rockwell, Edward Gorey, Martin eta Alice Provinsen, Juan Carlos Eguillor, Marjorie Pouchet, Javier Zabala, Bhajju Shyam, Natalie Minne, Delphine Durand edo Rébecca Dautermer, Iban Barrenetxea, Oscar Julve kataluniarra, Vincent Mathy belgiarra, edo Sebastian Barreiro argentinarra, Jokin Mitxelena eta Elena Odriozola, Claire Wendling, Enki Bilal, Nicolas de Crecy, Joe Sorren, May Gibbs, Noemi Villamuza, Quentin Blake, Wolf Erlbruch, Benjamin Chaud, Marc Boutavant, Camilla Engman, Sanna Annuka, Tom Seidmann Freud, Janosch, Björn Berg, Karl Larsson, Hokusai edo Hiroshige, Folon, Maurice Sendak, Iela Mari, Topor, Cohen, Crumb eta beste jende asko ere bai, Ekain kobazuloko zaldiak ahaztu gabe—

Zerrenda luzea osaturik ere, aipatu gabekoak gehiago direla ematen du. Ilustratzaileek beren grina bizibide baino, bizimolde ere badela ematen baitu, batzuen erantzunak irakurrita: «Baina irudiei begira egotea gustatzen zaidanez, edozein aukera izaten da ona; komikiei begira, diseinu-lanei, horma-irudiei... aukera ugari dago, eta irudia non, nire arreta han».

8. Zer proiektu «utopiko» burutzea gustatuko litzazuke? Zein da zure ametsetako edizioa? Edo dagoeneko burutzea lortu duzu?

Guztien artean amets bakar eta zehatza sortu da, izen-abizenak dituen eta erronka garbia dena: *Ipurbeltz* berreskuratzea. Kontuz, ez dute berriz martxan jartzeko eskatu—hor dago *Xabiroi*—baizik eta ederra izango litzatekeela biziberritzea behialako *Ipurbeltz* hura, digitalizatuz, berrargitaratuz, zabalduz...

Gainerakoan, ez dute horren ideia zehatzik proposatu. Batek bota du ehun urte barru Txi-

nan irakurriko litzatekeen saguzarren ipuin bat gustura idatziko lukeela, eta, era berean, gustura egingo lukeela haurra dendan bere kasa utzi eta zuzenean hartzen duen liburu horixe. Beste batek literatura unibertsaleko abenturazko klasikoren bat ilustratzea amesten duela aitortu du, Verne, Doyle edo Mevilleren lanak, adibidez.

Hainbatek presarik gabe, edizio zaindu batean, denbora iraungo duen produktua burutuko lukeela esan du. Beste batek ideia horri erantsi dio adin guztietako irakurleentzako liburu ilustratu bat egingo lukeela, haur nahiz helduen interesa pizteko gai den liburu bat, formatu handikoa eta edizio zainduarekin. Urliak esan du gustura ilustratuko lukeela liburu bat, testua idatzi aurretik. Poetaz mozturroturik bada esan duenik badituela zenbait marrazki eta ideia etxeko bazter guztietan, irakurlearengana iristeko zubi magikoaren faltan daudenak.

Beste muturrean, pragmatikoenek diote ez dagoela ametsetako edizio bat, edo, alderantziz, edozein proposamen berri ametsetako egitasmo bihurtzen zaiela. Azken finean lana ahalik eta kalitate handienarekin burutzea, eta ametsetan ez ibiltzea.

9. Azken urteotako teknologia aldaketek (inprimatzerakoan, informatikoki,...) zer-nolako eragina izan duten zure lanetan?

Galdera hau proposatu genienean, ohartzeko geunden ilustratzaile gazteenak ordenagailua besapean dutela jaio direla eta eurentzat «errealitatea horrelakoa» dela. Gainerakoentzat «moldatu beharra» izan da. Horregatik, agian, gazteenek lan prozesuaren parte «organikoa» balitz bezala hitz egin dute teknologia informatikoez, eta adinean gora egin ahala, iritziak onartu eta ikasi aditzetan ardaztu dira.

Gutxi-asko denek erabiltzen dute teknologia informatikoa, eta gehienentzat atsegina eta aberasgarria da. Pare bat moldatu ezinik edo moldatzeko gogorik gabe daude; salbuespena dira.



Iban Barrenexea

10. Zein da nagusiki erabili dituzun materialak ilustrazioak egiteko? Izan al duzu garapenik materialetan?

«Eskuz marrazten jarraitzen dut, pintzela eta arkatzekin; batzuetan materialaren aldaketarekin gauza berriak deskubritzen dira, eta horrela aurrerapauso bat egiten da, beste batzuetan materialaren aldaketa desastre hutsa izaten da!»

«Garapen inportanteena horixe, paperetik ordenagailura salto egitea.»

«Koloreetako arkatzekin lan egitea oso gustuko dut, baina azken urteotan teknika digitalak erabiltzen ditut.»

«Akuarela eta tintekin egiten dut lan, eta collage teknika ere nahiko erabiltzen dut.»

«Arkatza, tinta eta digitala. Kolorea emateko erabiltzen nituen lehen akrilikoak eta akuarelak. Gaur egun kolorea ia gehienetan modu digitalean lantzen dut. Marrazkiaren oinarria beti bezala

mantentzen dut: arkatza eta gero tinta marra eta ur-koloreak egiteko.»

«Akuarela gustatzen zait kolorea emateko, sekula menderatzen ez den teknika bat. Eta gustatzen zait edozein paperetan egiten ditudan marrazkiak eskaneatzeko ordenagailuak ematen duen aukera.»

«Akuarelak erabiliz hasi nintzen. Gaur egun akuarelak, arkatzak, akrilikoak, koloretako paperak, ordenagailua, errotulagailuak... erabiltzen ditut. Garapena teknika desberdinak probatzen ibili naiz, baina sarritan jotzen dut akuarelara, ez naiz nekatzen eta teknika harrigarria iruditzen zait, uraren arabera eta zure arabera beti desberdin ateratzen delako.»

«Tinta-luma, eta hori saiatu naizela tresnaz aldatzen. Baina atsegin dut, eroso sentitzen naiz, eta nire zalantzak argitzen laguntzen dit, besteek ez bezala.»

«Urteetan zehar erabiltzen ditudan materialak aldatzen joan dira: akuarela hasieran, gero tinta, akrilikoa geroago... baita paper motak ere, eta pintatzeko era... Berez etortzen dira aldaketak, beharrezkoak direnean.»

«Hasieran arkatza, rottrigna, errotuladoreak, kolorezko tintak, pintzelak, paper bereziak eta aurrerago, ordenagailua, disketea, CD grabagailua, *pendrive*-a, pantonea, eskanerra, disko gogorra, inpresora, tableta grafikoa eta abar...»

«Lan bakoitzean potentzial gehiago duten material eta teknika berriak probatzen ditut, beti gehiago gustatuko zaidan lengoia bisual propio bat bilatzen.»

«Gouachea, akuarela, tinta, arkatza, goma, zorrozka, pintzela, luma, aerografoa... Zailena, beti, papera aukeratzea izan da.»

«Collage gisa bestelako materialekin, teknika mistoa, baina gehienetan akuarela da oinarria.»

«Tinta, arkatza, koloretako arkatzak, kolore eta testura desberdineko paperak, eta, batzuetan, konputagailua, kolorea emateko.»

«Gero eta material gutxiago erabiltzen dut: arkatza, ordenagailua eta eskaneatutako testurak.»

«Tinta erabiltzen dut gero eta gehiago, eta gero eta pintzel handiagoak.»

«Oro har, aberastu egin naiz eta sorpresa hartzeko ahalmena ez dut galdu. Makinen eraginez, eskua alfertzeko arrisku handia dago. Kontua oreka bat bilatzea da, marraztu bizitzeko eta bizi marrazteko. Pantailaz nekatzen naizenean papera izugarri estimatzen dut. Osagarriak direla iruditzen zait. Formazioa etengabekoa da. Atzera begira jartzean asko argitaratu dudala ikusten dut, eta irakurleak nirekin pazientzia handia izan duela konturatzen naiz.»

11. Euskal ilustratzaileen lanek gure mugetatik harago bidea egin dezaten, zer egin beharko litzateke?

Aho batez emana: mugitu, norbere lana ikusgarri jarri eta internetez baliatu. Bada Galtzagorriren web orrian ilustratzaileei eskaintzen zaien atalak egiten dien mesedeaz ere akordatu dena.

12. Zure ustez euskal ilustrazio irakurleak marrazki klasikoek zalea al da? Edo gauza berrien zalea ote? Onartzen al ditugu?

Galdera modu desberdinean ulertu dute galdekatuek. Adostasuna dago nabarmenak diren kontuetan, esaterako, estetika etengabeko eboluzio batean dagoela eta gaur egun ere dena ibili badabilela. Baina iritzi kontrajarriak –aurkakoak– daude euskal



irakurlea klasikoaren edo modernoaren zalea ote den erabakitzean: batzuentzat berrizaleak gara, Olariaga bezalako ilustratzaileen eraginpean hazi garelako eta beste batzuentzat ez dugu arriskua maite izan oraintsu arte. Are gehiago «klasiko» hitza ere modu desberdinean ulertzen dute; esaterako bi lekukotasun hauek: «Zenbait liburu irakurlearenganaino iritsi ohi da, beste zenbait ez, liburuaren estiloa klasikoa izan... edo ez» eta «Berria izateagatik edozer gauza balio duela dirudi batzuetan, eta arazoa da moda bihurtzen dela, eta epe labur batean ez du balioko. Lan berri bat benetan ona bada, klasikoa bihurtuko da. Eta klasiko askok «berria» deitzen zaien horiek baino askoz modernoagoak dira».

Bada testuinguru honetan ideia iradokitzaile bota duenik ere; esaterako, irakurleak idazlearekin eta ilustratzailearekin batera eboluzionatzen duela, edo zaletasunak aldatu egiten direla eskaintzen denaren arabera, eta liburu ilustratuen irakurleak berez agertzen duela nolabaiteko sentsibilitatea.

Mezu positibo batekin amaitzearren, hona: «Gauza berriak edo klasikoak, hunkitzea nahi dugu!».



Asisko

Situación, sentimientos e ideas principales de la ilustración vasca (acercamiento)

Se envió una encuesta a los ilustradores que hasta la fecha han colaborado con la revista. Participaron un total de dieciocho ilustradores e ilustradoras.

Hemos analizado el contenido de las mismas con la esperanza de poder reflejar la situación, los sentimientos, las ideas y los análisis del panorama ilustrador actual en el País Vasco, con todo el respeto que se merecen los no convocados, pero con la convicción de que la cantidad de respuestas recogida (dieciocho!) es suficientemente significativa como para generalizar opiniones.

Ha sido imposible mostrar respuestas individuales en casi todas las cuestiones, de todas formas cuando ha sido posible lo hemos hecho. Del mismo modo las citas son anónimas, por que intentan reflejar opiniones generalizadas.

Estos han sido los y las colaboradoras, nombradas alfabéticamente: Aitziber Alonso, Iban Barrenetxea, Antton Dueso, Ángel Domínguez, Eider Eibar, Belén Lucas, Jesús Lucas, Dani Maiz, Iñaki Martiarena «Mattin», Lorena Martínez, Jokin Mitxelena, Elena Odriozola, Iraia Okina, Manu Ortega, Pedro Osés, Jose Antonio Tellaetxe, Mikel Valverde, Jon Zabaleta.

The Situation of Basque Illustration, Feelings and Main Ideas (an approach)

A questionnaire was sent out to the illustrators who have contributed to the magazine so far. A total of eighteen illustrators took part in it.

We have analysed the contents of them in the hope of being able to reflect the situation, feelings, ideas and analyses of the current panorama of illustrators in the Basque Country, with all due respect to those not called; we felt that the number of questionnaires received (eighteen!) was significant enough to come up with some general views.

It was not possible to reflect the individual responses appearing in most of the questionnaires, but we have nevertheless done so wherever possible. Likewise, the quotations are anonymous as the aim is to try and reflect widely-held opinions.

Those who contributed were the following in alphabetical order: Aitziber Alonso, Iban Barrenetxea, Antton Dueso, Ángel Domínguez, Eider Eibar, Belén Lucas, Jesús Lucas, Dani Maiz, Iñaki Martiarena «Mattin», Lorena Martínez, Jokin Mitxelena, Elena Odriozola, Iraia Okina, Manu Ortega, Pedro Osés, Jose Antonio Tellaetxe, Mikel Valverde, and Jon Zabaleta